

TREBAKUNTZA 2014-11: BERANDUAGO/GEROAGO

Gaztelaniazko “tarde” hitzak bi adiera ditu: berandu eta gero. Beharbada, buruan konturatu barik erdara darabilgulako, nahasi egiten ditugu biak.

Hona hemen behin baino gehiagotan ikusi izan ditugun akatsak.

OHARRA: *asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.*

OHIKO AKATSAK

- 1 *Gai hori **beranduago** aztertuko dute teknikariek.
- 2 ***Beranduago** jakingo dugu alkatearen erabakiaren berri.
- 3 *Osasunaren lehen gola hamabi minutu **beranduago** etorri zen.
- 4 *Bonbardaketak guztiz suntsitu zuen Gernika, baina hemen ez da igartzen, irudiok 50 urte **beranduago** hartutakoak dira eta.
5. Gaur ez dut zabalik topatu denda, eta bihar **geroago** joango naiz.

AZALPENA

Gero: *beste zerbaiten ondoren* adierazten du, puntualitatearekin edo garaiz ibiltzearekin inolako zerikusirik gabe, hau da, segida kronologiko hutsa adierazten du. Erabil liteke geroago; esaterako, demagun batek esan duela Kolon 1475ean heldu zela Ameriketara; orduan, hauxe erantzun beharko:

OKER: *Ez horixe! Askoz **beranduago** heldu zen: 1492an, hain zuzen ere.

ZUZEN: Ez horixe! Askoz **geroago** heldu zen: 1492an, hain zuzen ere.

Berandu: atzerapena adierazten du; hau da, behar den ordua edo sasoiaren ondoren, eta goiz edo sasoz hitzen kontrakoa.

Jon berandu heldu da: bilera zazpietan zen arren, zortzietan heldu da.

U d a l e r r i E u s k a l d u n e n M a n k o m u n i t a t e a

www.uema.eus

Beranduago erabili ahal izateko, behar-beharrezkoa da lehenago berandu bat erabili izana. Esaterako, demagun bilera bat seietan genuela, baina Jon sei eta erdietan heldu dela, eta Miren, ordea, zazpitan; hortaz:
Jon berandu heldu da eta Miren beranduago.

Batzuetan, «geroago» sartzen dugu «beranduago»-ren lekuan:

OKER: * *Gaur ez dut zabalik topatu denda, eta bihar geroago joango naiz.*

ZUZEN: *Gaur ez dut zabalik topatu denda, eta bihar beranduago joango naiz.*

Gogoratu «lehen» / «gero» eta «goiz» / «berandu» direla aurkaritzak. Esaldi hori ezezkoan ipinita, «*Bihar ez naiz hain goiz joango*» esango genuke. Baiezkoan, beraz, «berandu(txo)ago» behar du izan.

ZUZENKETAK

1. Ad. Gai hori geroago aztertuko dute teknikariek.
2. Ad. Geroago jakingo dugu alkatearen erabakiaren berri.
3. Ad. Osasunaren lehen gola hamabi minutu geroago etorri zen.
4. Ad. Bonbardaketak guztiz suntsitu zuen Gernika, baina hemen ez da igartzen, irudiok 50 urte geroago hartutakoak dira eta.
5. Ad. Gaur ez dut zabalik topatu denda, eta bihar beranduago joango naiz.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMAko teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin:

Telefonoz: 94-6279195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udal erri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
94-627.91.95

Done Petri 14, behea
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943-26.03.72

Enparan kalea 1, 2.a Sindikatu zaharra
20.734 Azpeitia
Gipuzkoa
943-81.66.99